

## **KONTROL MOZIOA**

### **UDALEKO GENERO INPAKTU TXOSTENAK EGITEKO PROZEDURA**

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

2018ko iraileko eta azaroko udal batzordeetan udal gobernuko berdintasunerako ordezkariari, maiatzean Eudelek eta Emakunde-k toki mailan generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioen ezarpena bultzatzeko prozeduraren inguruan galdetu genion. Batzordeetan jasotako erantzunaren arabera Donostiako Udaleko Berdintasun Bulegoko eta Zerbitzu Juridikoetako teknikariek aipatutako prozeduran parte hartze aktiboa izan zutela eta, horiek horrela, ondorioztatu diren jarraibideak Udalean nola txertatu aztertzen ari zirela erantzun zitzaigun.

Hamar hilabete dira Eudelek eta Emakundek toki mailan generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioen ezarpena bultzatzeko prozedurari dagozkion jarraibideak aurkeztu zituela eta sei hilabete dira Berdintasuneko zinegotzi ordezkariak Udalean jarraibideak nola ezarri aztertzen ari zirela erantzun zuenetik. Aipatutako jarraibideen eraketan udalak parte hartu duen heinean, ezin da ulertu Hirigintza alorreko txosten guztiek prozedura berari ez jarraitzea. Are eta gehiago ezin da ulertu, generoaren araberako inpaktua aztertzen duten txostenak direla eta, Udalbatzara eraman diren azkeneko espedienteak onartu ondoren sortu diren eztabaidak ikusita, hain zuzen ere, jarraibide hauen ezarpenaren faltagatik. Beraz, ez dago denbora gehiago itxaroterik, Udalbatzak hartu behar dituen erabakiak egokiak izan daitezen.

Horiek horrela, aurkezten dugu honako Kontrol Mozio hau:

## KONTROL MOZIOA

1.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ahalik eta azkarren, Eudelek eta Emakundek toki mailan generoaren araberako inpaktuaren aurretiazko ebaluazioen ezarpena bultzatzeko prozedurari dagozkion jarraibideak Donostiako Udalean inplementa ditzala.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Naiara Sampedro Perez

**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**